



M I K O L E T A D U M A

Clouseau Panteragorri
ZAZPIKOTEA MUSEOAN



desclée



**ZAZPIKOTEA
MUSEOAN**

CLOUSSEAU PANTERAGORRI

DESCLÉE DE BROUWER

Liburu honetan pertsonaia hauek
aurkituko dituzu:

ni, Clousseau Panteragorri
eta gainera

Manoli, gauza arraroak esaten dituen

Maitane, azkarra eta argia

Judas, heavya

Joxean, parrandaren profesionala

Bea, berbatia

Arantxa, erreboluzionatua

eta

Salutadore, androiderik jatorrena

SARRERATXOA

Kaixo! Nire izena Clousseau da, Clousseau Panteragorri. Eta nire taldea ZAZPIKOTEA da.

Zazpikotearen abentura berri bat **gertatzen** denean sarreratxo hau egiten dut; izan ere, beti egoten da zazpikotearen **berri** ez duen jendea. Horregatik, irakurle horientzat, zerbait esan behar dut sarrera moduan.

Zuetako batzuek **dagoeneko** ezagutzen nauzuenez, ondo dakizue zaharra naizela, aguretxo bat, baina oraindik ere euskaltegian egiten dudala lan. Irakaslea naiz, bai, euskaltegi honetako irakasle zaharrena, eta zazpi ikasle horiek oso gustukoak ditut, **nahiz eta** batzuk berezitzoak izan.

Maitane nire **kuttuna** da, oso azkarra delako eta piropoak botatzen dizkidalako. Punkya da eta bere itxura oso **bitxia** da ni bezalako agure **txotxatu** batentzat.



gertatu: jazo, “suceder, ocurrir”.

berri: notizia.

dagoeneko: “ya”.

nahiz eta: “aunque...”.

kuttun: faboritua.

bitxi: estrainoa, arraroa.

txotxatu: urteak aurrera doazenean burua galtzea.

Judas haren senargaia da... edo mutilaguna; berak horrela esaten digulako. Heavya da, eta piska bat **astapotroa**, baina normalean **jatorra** izaten da.

Gero hortxe dago Joxean. Sarritan, klasera erdi-mozkortuta etortzen da. Batzuetan gupasa egiten du eta oso txarto ibiltzen da euskaltegian.

Arantxa, laugarrena, oso jatorra da, eta kirozalea, baina hiperaktiboa ere bai; **hori dela eta**, askotan **urduritzen** ditu ikaskideak.

Hurrengoa, Bea, ez da pertsona txarra, baina bai astuntxoa batzuetan, batez ere gramatikari **buruzko** galderak egiten dituenean. Denbora guztian ibiltzen da galdetzen, **etengabe**, eta guztiak **zorutzen** ditu: bai ikaskideak, baita ni ere.

Manoli da, dudarik gabe, taldeko bitxiena. Bere ikaskideek buruan txori asko dauzkala esaten dute, eta neuk ere egia dela uste dut. Beti ibiltzen da gauza arraroei buruz **kontu-kontari**.

6



astapotro: gauzak kontu handirik gabe egiten dituena.

jator: majoa.

hori dela eta: horregatik.

urduritu: urduri jarri.

-ri buruz: “sobre..., acerca de...”.

etengabe: gelditu gabe.

zoratu: zoro bihurtu, “volver loco”.

kontu-kontari: gauzak kontatzen, hitz egiten.

Zazpigarren ikaslea androide bat da; bai, agian pentsatuko duzue arraroa dela, baina egia da, azken modelo dugu. Izena Salutadore du, eta benetan jatorra da. **Izaki** zibernetikoa da baina fisikoki humanoa dirudi, hain da perfektua. Guk berprogramatu dugu eta horregatik beste sei ikaskideen **ezaugarriak** dauzka bere zirkuitu artifizialetan, eta horregatik ere ondo **moldatzen** da guztiekin.

Salutadore abentura bateko protagonista izan zen beste liburu batean. Abentura horri buruz gehiago jakin nahi baduzue, ZAZPIKOTEA EUSKALTEGIAN **liburuska** irakurri beharko duzue, **bertan** kontatu nuelako dena. ZAZPIKOTEA ETA BIRUS MUGAGABEA liburuan ere pertsonaia horiek guztiak ikusi ahal dituzue; azken liburu horretan Manoli izan zen protagonista. Zazpikotearen hirugarren liburuak ZAZPIKOTEA SAGARDOTEGIAN zuen izenburua, eta bertan Joxean izan genuen protagonista. Laugarren liburuaren izenburua hau izan zen: ZAZPIKOTEA BARNETEGIAN. Abentura horretan, izenburuak berak dioen bezala, barnetegira joan ziren nire zazpi ikasleak; beraz, denak izan ziren protago-



izaki: “ser”.

ezaugarri: “característica”.

moldatu: adaptatu, egokitu.

liburuska: liburutxo.

bertan: han.

nista eta egia esateko ez zen abentura bakarra gertatu, ugari baizik.

Oraingo hau zazpikotearen bosgarren istorioa da. Bertan **gorabehera** asko biziko dituzte nire zazpi ikasleek. Museo batera joan ginen, **txangoa** egiteko asmoz, eta bertan denetarik gertatu zitzaigun. Ai, ene, hasieran dena ondo joango zela **zirudien**; gero, ordea, nire ikasleetariko bat galdu eta orduan hasi ziren **komeriak**. Ez dizuet ezer gehiago kontatuko, istorioa zuek irakurri behar duzue eta. Ez dago ezer **lotsagarri**agorik liburu edo filme bateko amaiera kontatzea baino. Hori da hori errespetu falta! **Tira**, zertaz ari ginen?... A, bai! Gauzak kontatzeaz. Barkatuko didazue baina burua askotan joaten zait. Adinaren arazoa. Gauza bat baino ez dizuet esango: oso-oso **atsekabe** handia hartu nuela hasieran, gertatu zirenak ikusita; gero, berriz, denbora pasa ondoren ez nintzen gertatutakoaz batere **kezkatu**. Hori baino ez dizuet kontatuko.

Ezagutzen ez banauzue, adinaz aparte erdigorra nagoela esango dizuet; bihotza ere txarto

8



gorabehera: gertaera, pasadizo, abentura.

txango: “excursión”.

zirudien: dirudi, iraganean.

komeria: nahastea, “lío”.

lotsagarri: lotsa ematen duena, “bochornoso”.

tira: beno, amore emateko hitza.

atsekabe: disgustua.

kezkatu: arduratu, kezka izan, “preocuparse”.

daukat. Markapasoa daramat hor barruan, bihotzaren ondoan. Batzuetan, tentsio handia sentitzen dudanean, markapasoa TAUP-TAUP-TAUP hasten zait, **abiada bizian**. Horrelako kasuetan, sendagileak esan dit kontuz ibiltzeko, oso arriskutsua dela. Piska bat **herrena** ere banaiz. Ezin naiz ondo ibili. **Azkenik**, burua ere ez daukat oso ondo: gauzak ahazten zaizkit, edo apurtzen ditut... Desastretxo naiz! Ikasleek, hala ere, asko maite nautela uste dut: piropo asko egiten didate, “Clousseautxo” eta “Polita” eta horrelako **loreak** botatzen dizkidate... eta abar. **Zuriak** baino zuriagoak dira!

Dena dela, ez da sendagilea kontuz ibiltzeko esaten didan **bakarra**. Andrea ere asko kezkatzen da eta ia-ia egunero lana uzteko eta berarekin egoteko esaten dit. Asko maite nau. Nik bera ere asko maite dut.

Iaz, bada, kasu egin nion. Lan gutxiago egin nuen. Gorputza zaindu behar nuen! Barne-



abiada bizia: “gran velocidad”.

herren: ezin dena ondo ibili, “cojo”.

azkenik: azkenez, azkenean, “por último, finalmente”.

lore: piropoa.

zuri: “pelota”.

dena dela: edozein modutan ere, “sea como fuere, de todas formas”.

bakar: “único”.

iaz: joan den urtea.

bada: ba, hala, beraz, hortaz, “así pues”.

tegira, adibidez, ez nintzen joan. Gero, bueltan, ikasleek dena kontatu zidaten. Eta nik, noski, zuoi kontatuko nizuen. **Aurten** ere kasu egin diot. Talde guztiak utzi ditut, bat **izan ezik**:

Zazpikotearena. Horiekin nago, oraindik ere. Datorren urtean zer egingo dudan ez dakit. Gauza gutxi dakit etorkizunari buruz. Gure adinekoentzat etorkizunak ez du **garrantzirik**, oraina edozein momentutan galdu ahal dugu eta.

Ai, ene! A ze despistatua eta **txoriburua** naizen! Lehen abentura berria kontatuko dizue-dala esan dizuet eta orain **zera** gogoratu dut, ez naizela hasi. A ze **erretolika** nirea, barka!

Tira, orain bai, orain benetan. Goazen Zazpikotearen bosgarren abentura ezagutzera... Ai, nire burutxoa! Barkatu behar didazue baina burua joan egiten zait. Andreak arrazoia dauka; atsedena hartu behar dut, urteek ez dutelako barkatzen.

Zer egingo diogu, ba? Edadea, badakizue...

Clousseau Panteragorri

10



aurten: urte honetan.

izan ezik: “excepto”.

garrantzi: inportantzia.

txoriburu: “cabeza de chorlito”

zera: hau, “lo siguiente”.

erretolika: “rollo”.